

GURE IRAKURGELA

IBILBIDE PERTSONALAK

Manu Lopez Gaseni

Vicente Muñoz Puelles idazle valentziarra “Oskar eta postetxeko lehoia” (Anaya 1999, Espainiako Sari Nazionala) obragatik egin zen ezaguna haur literaturaren eremuan. Lehenago, obra oparoa idatzia zuen helduentzat, eta itzultzaile gisa lan egindakoa ere bazen.

Oraingoan Erein argitaletxeak euskaratu dion “Hiriko animaliak” lehenengo haren bidetik idatzitako liburua da: ume txiki baten beldurrei buruzko istorioa hiri giroan kokatua, hiriko animaliak



Liburua: “Hiriko animaliak”
Egilea: Vicente Muñoz Puelles.
Marraskilaria: Noemi Villamuza.
Argitaletxea: Erein, 2006.

(kasu hartan postetxeko lehoia) istorioko elementu nagusi gisa erabiliz.

Halaxe da honako honetan ere: Rikardo umeak sei urte ditu eta Madrilen bizi da. Oso gauza gutxi daki munduaz, baina dakizkienak oso garbi dauzka: pertsona handiak (beltzez jantzitako emakumeak, gizon lodiak) ez zaizkio gustatzen; salbuespen bakarra, bere gurasoak. Beste gauza batzuk, berriz, izugarri gustatzen zaizkio, oso berezki animaliei buruzko liburu koloreztatuak. Baina hiria ez da oihera, ez dago

piztiarik. Dauden animalia bakarrak, txakurrak alde batera utzita, harrizko estatueta daudenak dira. Horiek asko maite ditu Rikardok, eta arreta berezia jartzen die gurasoekin ateratzen den bakoitzean.

Prestaketa horrek ipuineko korapilorako bidea ematen du: egun batean, Rikardo galdu egin zen jendearen artean, eta hantxe geratu zen, ez aurrera ez atzera, zer egin ez zekiela eta beldurtuta. Baina umeek oso garatua omen dute heldu gehienok galdua dugun pentsamendu dibergentea, arazoei ezohiko aldetik begiratzeko dohaina.

Eta horri esker, eraman handiko irakurleak honez gero asmatuko zuenez, etxerako bidea aurkituko zuen: hiriko animalia batek beste batengana heltzeko bidea erakutsi zion (ahatea, zaldia, lehoia, zezena...), etxeko atarira (eta ipuineko amaiera zorionsura) heldu zen arte. Hori bai, ipuina erabat amaitu aurretik, betiko flinkatu zuen buruan etxeko helbidea: Perez Pujol kalea, 10. Eta hori guztia heldu gorrotagarrien laguntzarik batere gabe.

Ipuinari ez zaion umorerik falta, eta Noemi Villamuzaren irudiek indar berezia ematen diote.